

ZER DA WLAN SAREA (WIFI)?

Kablerik gabe konektatu ahal izateko erabiltzen dugun sare mota da. Etxean aurkitzen ditugu, adibidez, seinale bat igortzen duen eta Interneten ibiltzeko aukera ematen digun "router" deitzen dugun aparatu txiki horren bidez.

Seinale hori kalean ere aurkitu dezakegu, hau da, leku publikoetan: merkataritza-gune batean, zure kafetegi gustokoenean, liburutegian, gizarte-etxean, kiroldegian, etab.

Eta bada konektatzeko hirugarren modu bat: gure telefono mugikorraren edo tabletaren Internet beste persona batzuekin partekatzen dugunean, gure telefonia-operadorearekin kontratatuta ditugun datuak erabiliz.

Ez dago arazorik etxetik kanpo Interneten ibiltzeko, baina garrantzitsua da zein sare-motaren bidez konektatzen ari garen ohartzea, fidagarria edo segurua den kontuan izateko.

AHOLKUA: SAREA GUREA EZ BADA (KALEAN EDO BESTE GAILU BATZUETAN), KONTUZ IBILI.

Nabigatu ahal izango duzu, baina hobe da beti zure datuekin egitea, zuk kontrolatzen duzun konexio motan. Sare hori zure etxekoa edo mugikorrekoa ez bada, hirugarren batek kontrolatzen du, eta, beraz, ezagutu beharreko arrisku batzuen aurrean jartzen ari gara.



ETA ZEIN DA KONTROLATZEN EZ DUDAN SARE BATERA KONEKTATZEKO ARRISKUA?

Sare hori nirea ez bada eta nik kontrolatzen ez badut, hartzen duzun arrisku nagusia horren atzean zibergaizkile bat ezkutatzea da.

Eta zer egin dezake? Laburbilduz, une horretan bidaltzen edo jasotzen ari garen informazio guztia eskuratu ahal izango du. Ez dirudi gauza handia, salbu eta gure koadrilarekin, gustatzen zaizun persona horrekin, gurasoekin... trukutzen ari garen testu-mezu edo argazki guztiak irakurri eta ikusi ahal izango dituela esaten badizut.

Era berean, zure pasahitzetarako sarbidea izan dezake, gure sare sozialetara sartzen ari bagara, edo eskolarako dudan emailera edo "hodeian" gordetzen ditudan argazki eta fitxategi garrantzitsuen biltegiara. Kontua korapilatu egiten da, ezta? Zure izenean argitaratu eta kredentzialak aldatu ditzakezulako, zure informazio pribatua erabili, etab.

Eta, jakina, zerbait erosten edo ordaintzen ari banaiz, gure banku-informazioa eskura izango luke. Ziurrenik, zure kasuan, ez duzu erosketarik Internet bidez egingo, baina gailu hori zure gurasoekin partekatzen baduzu, adibidez, erregistratutako datu guztiak ere arriskuan egongo dira.

Mugikorrean nabigatzeko modua ere manipulatu dezake, eta egiazkoak iruditzen zaizkigun webgune faltsuetara bideratu edo erakutsi, non erraztuko dugun informazio sentikorra eska diezagukeen, itxuraz fidatzen ari garelako.

Horregatik, aireportu edo merkataritza-gune horretako sareko mega gutxi batzuk doan disfrutateagatik, arriskua ez du merezi. Egin nahi baduzu, hobeto nabigazio pribatuan, webgune fidagarrietan (URLa ondo begiratu), loginik edo pasahitzik gabe, eta askoz gutxiago, ordainbiderik.

Hurrengo taulan, gure egunerokotasunean egun normal batean nabigatzen dugunean, gurea ez den sare batera konektatuta bagaude agertzen zaizkigun mehatxu batzuk aurkituko dituzu:

WIFI PUBLIKO BATEN ARRISKUAK

	Prensa/ weba/bloga irakurri	Gure sare sozialetara sartu	Fitxategi bat deskargatu	E-mail bat bidali	Online erosketa bat egin
Gure online aktibitatearen espioitza	*	*	*	*	*
Erabiltzailearen eta pasahitzaren lapurketa		*		*	*
Informazio lapurketa		*		*	
Baku-datuen lapurketa					*
Birus/malware bidezko infekzioa		*			

